

Julen Telleria Lopetegi
Tolosa, Gipuzkoa (1990) Julen Telleria Lopetegi

Aurkibidea

Biografia

Julen
Telleria
Lopetegi

1990eko irailaren 28an jaio zen Julen. Iruran jaiotako tolosarra dela dio; izan ere, urtebete eskas zuela familia Iruratik Tolosara joan zen bizitzera. Aita tolosarra du, eta ama, berriz, Belauntzakoa. Bi senidetan zaharrena da. Umetatik izan du musikarako zaletasuna, eta hiru urterekin musika eskolan hasi zen. Zortzi urterekin perkusioa ikasten hasi, eta bateria ikasketak egin zituen gero. 10 urterekin atera zen aurrenekoz inauterietan txarangarekin danborra jotzen. [Udaberri dantza taldean](#) danborjole moduan hasi bazen ere, hainbat urte eman ditu taldeko antolaketa lanetan. Tabernari lanetan ere ibilia da. Ikus-entzunezko ikasketak egin zituen Leioan. Karrera amaierako praktikak Euskadi Irratian egin zituen. [Gaztea Irratian](#) asteburuetako irratsaio batekin hasi zen. Ondoren, *Akabo bakea* gaueko saioan aritu zen bi urtez Amaia Artetxerekin. Eta elkarriketa egin genion unean, *Akabo bakea* arratsaldeko irratsaioko eta [Gu ta gutarrak](#) Etb 1eko saioko aurkezle lanetan zebilen. Musikaz, lagunarteaz, Tolosako inauteriez, herriko giroaz eta beste hainbat gairi buruz mintzatu zitzaigun.

Zintak

TOL-074

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Data:** 2015-12-14
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Eizagirre Agoues, Libe

Pasarteak

1. Aurkezpena

- **Erref:** TOL-074/002
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:00:23. **Bukatu:** 00:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Julen Telleria Lopetegi 1990eko irailaren 28an jaio zen Iruran. Urtebete zuela, bere gurasoekin Tolosara joan zen bizitzera. Aita tolosarra du eta ama Belauntzako baserri batekoa. Bi anaietatik bera da zaharrena. Kalekumea den arren, Tolosako auzo batekoa da. Txikitan txabolak egitea gustatzen zitzaion.

2. Haurtzaroko eskola eta aisialdia

- **Erref:** TOL-074/003
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Julenen auzoak lurre izena du, eta ikastolan auzoka sailkatzen zituztela kontatzen du. Ondorioz, bere ikaskideak auzokoak zituen. Koadrila ere eskolako berbera du, denak mutilak. Euren haurtzaroa San Esteban auzoko parkean pasa zuten. Gero, hamasei urterekin lokala hartu zuten.

3. Aisialdirako lekuak: lokalak

- **Erref:** TOL-074/004
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Bere belaunaldikoak zein zaharragoak diren gazteek lokala izateko duten ohituraz dihardu. Lokalean bere koadrilakoek musean jolasteko ohitura zuten. Tolosan koadrilak talde hertsia dira, baina Julenek zortea du talde askotan ibili izan baita eta, ondorioz, koadrila asko ditu.

4. Musika ikasten eta txaranga jotzen

- **Erref:** TOL-074/005
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:14:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika munduan nola murgildu zen kontatzen du. Hiru urterekin musika eskolan hasi zen, eta zortzi urterekin, aitaren gomendioei jarraiki, perkusioa ikasi zuen. Txikitatik bere ilusioa inauterietako txaranga jotzea zen. Eskolan ere txaranga bat sortu zuten. Hamabost urte inguru zituela, Erretereriako txaranga batean jotzen hasi zen profesional gisa.

5. Txarangaren kultura Tolosan

- **Erref:** TOL-074/006
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:14:41. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Erretereriako txaranga sartu zela eta hainbat urte bertan eman dituela kontatzen du. Ondoren, bere anaiarekin eta ikaskideekin batera Tolosako txaranga batean jarraitu zuen. Azkenik, euren txaranga sortu zuten, "Jai nekin" izeneko. Tolosan txarangarako ohitura handia dago.

6. Bonberenea gaztetxea

- **Erref:** TOL-074/007
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:17:33. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak

Laburpena:

Bonberenea gaztetxearen inguruan dihardu, auzolanaren bitartez eraiki zena gazteentzako. Proiektu hori aurrera ateratzeko egindako lana azpimarragarria dela uste du.

7. Udaberri dantza taldeko danbor-jole

- **Erref:** TOL-074/009
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:20:12. **Bukatu:** 00:24:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

"Udaberri" dantza taldean danborra jotzen ere ibilia da Julen. Egun, bost urteren ondoren, taldea utzi du denbora faltagatik. Tolosan dantzarako ohitura handia dago, eta hori Jose Luis Vallejo irakasleari esker izan da.

8. Bateria jotzea, bidaiatzeko aitzakia

- **Erref:** TOL-074/010
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:24:32. **Bukatu:** 00:25:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Udaberri dantza taldearekin bidaia asko egin ditu Espainian zehar. Ibarako Alurr taldearekin, berriz, Esloveniara joan zen bateria jotzera.

9. Musikari ibilbidea

- **Erref:** TOL-074/011
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:25:52. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Dantza taldetan eta txarangan ez ezik, talde pare batean bateria jole zein abeslari gisa ere aritu izan da. Unsain anaiekin bateria jole gisa eta Dolce Tangana-rekin abeslari gisa.

10. Nolakoa da parranda Tolosan?

- **Erref:** TOL-074/012
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:31:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Tolosako gau giroaren inguruan dihardu. Lehen giro gehiegi ez zegoen arren, orain asteburuetan giro ederra dagoela esaten du.

11. Lagunekin euskaraz? Eta hiketan?

- **Erref:** TOL-074/013

- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:31:28. **Bukatu:** 00:35:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Julenek euskaraz hitz egin arren, lagunartean gaztelaniaz jarduteko joera du. Hitanoari dagokionez, amaren baserrian Belauntzan denek elkarren artean hiketan egiten dutela dio. Aitak ere hiketan egiten die. Berak esaldi motzetan erabiltzen duen trataera bat da, Tolosan oro har hiketan gutxi hitz egiten baita.</p>

12. Herri euskalduna al da Tolosa?

- **Erref:** TOL-074/014
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:35:56. **Bukatu:** 00:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Tolosa herri euskalduna da eta jende gehienak badaki euskaraz. Erabilera handia izan ez arren, Tolosan euskaraz arazorik gabe bizi daitekeela uste du.

13. Tolosako festak

- **Erref:** TOL-074/015
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:40:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Tolosako festa nagusiak Inauteriak eta San Juanak dira. Hala ere, "Babarrun egunak" eta "Koadrilen egunak" gero eta indar handiagoa dute.

14. Inauteriak I

- **Erref:** TOL-074/016
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:40:31. **Bukatu:** 00:44:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Inauterietako giroa nolakoa den kontatzen du. Txikitatik txarangarekin lotu izan ditu festa hauek, eta urte askoan berak ere txaranga parte hartu izan du. Hunkigarria iruditzen zaio astearte gauean Tolosako txarangek egiten duten emanaldia.

15. Inauteriak II

- **Erref:** TOL-074/017
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:47:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Inauterietako prestakuntza lanei dagokienez, Julenek eta bere lagunek azkeneko momenturako uzten dituzte lan hauek. Mozorroa etxean prestatzea gustatzen zaio, ganbarara joan eta bertan dagoena janztea.

16. Nola hasi zen komunikazioan lanean I

- **Erref:** TOL-074/019
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:48:46. **Bukatu:** 00:53:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Komunikazioaren munduan lanean nola hasi zen kontatzen du. Euskadi Irratian praktiketan hasi zen. Gero, unibertsitatea bukatzean, Gaztea irratitik deitu zioten praktikak bukatu eta aste betera. Gero, telebistan lan egiteko eskaintza egin zioten. Egun, bietan lan egiten jarraitzen du.

17. Nola hasi zen komunikazioan lanean II

- **Erref:** TOL-074/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:53:16. **Bukatu:** 00:55:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Telebista eta irratia, biak ditu gustuko. Irratian, ordea, erosoago sentitzen da lanean denbora gehiago daramalako. Erretiroa hartu arte irratian lan egitea amesten du, asko gustatzen baitzaio.

18. Sare sozialak eta giza harremanak

- **Erref:** TOL-074/022
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:57:54. **Bukatu:** 01:00:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Sare sozialek giza harremanetan izan duten eraginaz dihardu.

Telleria Lopetegi, Julen | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com